

1715/2015, Inprenta Vianan eta Francisco De Alesón heriotzaren 300. urteurrenean...

Goizean goiz, zenbait gurdi sartu dira hirian, Solanako atetik, eta Gazteluko kalearen erdian gelditu dira. Han, langile batzuk oso tresna arraroak eta kutxa pilo bat deskargatu dituzte, eta etxe batean sartu dituzte.

- Zer gertatzen da?
- Zergatik iskanbila hori?
- Eta traste arraro horiek, zertarako dira?
- Auskalo!!!
- Guri, zera esan ziguten Iruñean: hartu guzti hori eta eraman Vianara!
- Eta hemen gaude.
- Aizue, mesedez, horrela ezin dugula lanik egin!

Arratsalde erdian, ohatze bat daraman gurdia bi mando tiraka La Cuestilla del Estudiotik igotzen da, eta etxeke atearan aurrean dagoen jende talde baten artetik aurrera egiten saiatzen da.

- Alden zaitezte! Utz gaitzazue pasatzen! – oihukatzen du mandazainak.
- Nor izango ote da barruan doana?
- Ez dakit, baina dirudienez, oso pertsonai garrantzitsua izan behar da.

Azkenik ohatzea etxe aurrean gelditzen denean, sotana beltza janzten duen jauna jaisten da.

- Nor ote da?
- Zuetako norbaitek ezagutzen al du?
- Nik bai! Francisco de Aleson jauna da, Nafarroako Erresumaren Kronikari Ofiziala!
- Nola zahartu den hemen azkeneko aldiz egon zenetik!

- Hori... duela sei urte izango zen! Annalesetako laugarren liburukia argitaratu ondoren izan zela uste dut. (Annales: Historia urteka kontatzen duten liburuak)

- 79 urte bete ditu jada eta... adinak ez du barkatzen!

- Gainera, oso nekatuta egotearen itxura du.

- Eta nolatan etorri da Vianara horrela egonda?

- Inprimategia bere etxean jarriko dutela diote.

- Denbora gutxi geratzen zaiola komentatzen da, eta bere azken borondatea Nafarroako Erresumaren Annalesen bostgarren liburukia hemen, Vianan, inprimatzea dela.

- Ba, bere edukia interesgarrietako bat izango da!

- Korapilotsua eta polemikoa, ere bai!!!

- Eta hori, zergatik?

- Bada, beste gai batzuen artean, Gaztela eta Nafarroari buruz hitz egin behar du eta oraindik orduko zauri ireki asko geratzen dira eta.

- Bai, gai zaila da, eta ezin da denen gustora egin!

- Guretzat Francisco de Alesón jauna hemen jaio izana harrotasuna da eta bada, Inprimategia hemen jartzea ohorea, horrela, Viana Nafarroako Hiriburu Kulturala bihurtuko du.

- Aizu! Francisco jaunak hainbesteko kategoria al du?

- Izango ez du, ba! Gure Lurraldearen Historia ederra, ahalik eta egiazkoena, elezaharrik eta pasadizorik gabe, idazteko aukeratuta izan da, jendeak gertatu den moduan ezagutu dezala, Francisco Jauna, Erresumako pertsonarik ikasiena eta trebeena da.

- Bada, diozun moduan, persona garrantzitsua da! Baina, a zer lana duena!

- Bai horixe! Eta lan ederra! Ikertzea eta gure lurraldean eta hemendik kanpo informazioa bilatzea, beste hizkuntzatan idatzitako liburuak itzultzea...

- Hizkuntz piloa menderatzen dituela diote!

- Francisco jaunak idazten duena irakurri ahal izatea gustatuko litzaidake! – dio haur batek.

- Bada ni -beste haur bat kexatzen da-, zuek hortik jolsten ari zareten bitartean, irakurtzen, idazten eta kalkuluak egiten ikasten ari naiz, eta ez zait batere gustatzen.

- Zuk ez dakizu duzun zoria! -han bildutako hainbat umek batera erantzuten diote.

- Nik letrakikastea nahiago nuke irakurri ahal izateko, eta gure lurraldeko historia eta beste istorioak ezagutzeko, eta entzuten ditudan eta ikusten ditudan gauza asko ulertu ahal izateko - kexatzen da nahiko hazitako mutiko bat!

*Francisco de Alesón Jaunak Vianan jaio zen 1634. Urtean, ekainaren 7an, jesuita anaia, Jesusen Lagundian barruan kargo garrantzitsuak hartu zituen. Joseph Moreten heriotza eta gero, Nafarroako Aldundiak eta Gorteak kronikaria izendatu zuten, eta Annalesetako bigarren eta hirugarren liburukiak berrikusi zituen, laugarrena eta bostgarrena prestatu zituen (azken hau Vianan inprimatuta), eta seigarrena amaitu gabe utzi zuen.*

*Don Francisco de Alesón, Vianan jaio diren pertsonaia ospetsuenetako bat da, Logroñon hil zen 1715. Urtean, urriaren 8an.*



*Francisco de Alesónek prestatuta*

